



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

2019ko MARTXOA - Aile berezia

## “Honen parte izatea eta lehen lerrotik bizi ahal izatea luxua izan da”

**Bertsozale Elkarteko koordinatzaile den Aritz Zerainek erreleboa iragarri du. Hurrengo koordinatzailearen bila ari da elkartea; martxan da lan deialdia.**

Bertsozale Elkarteko koordinatzaile lanetan aritu da Aritz Zerain 2008tik orain arte. Aurretik, 1987tik 2006ra Koldo Tapia aritu zen lan horretan, eta, jarraian, 2008ra arte Jexux Muruak bete zuen postua; hamaika urteren ondoren, aurten emango du erreleboa Zerainek. Bere ibilbideari begiratu eta Bertsozale Elkartearen egitasmoaz zein bertsolaritzaz, oro har, hitz egin dugu Aritz Zerainekin.

**Hamarkada pasatxoko ibilbidearen ondotik, zikloa ixtera zoaz. Zer nolako balantzea egiten duzu?**

Balantze oso positiboa egiten dut, bai pertsonalean baita elkarteari begira ere. Hamaika urteotan Bertsozale Elkartea asko hazi da, egitasmoarekin berarekin

batera, bertsolaritzaren beharrei erantzuteko.

Langai ditugun hiru zutabeetan [transmisioa, sustapena eta ikerkuntza] pauso esanguratsuak eman dira. Etengabe berritzen ari da bertsolaritzaren ekosistema, eta kulturegintzan, euskalgintzan eta -gintza askotan, belaunaldi ezberdinen bidez egiten den ekarpena oso interesgarriada. Bertsolariek beren kabuz zein elkartetik egin den lanak, plaza kopuruaren eta aniztasunaren hazkundera ekarri du. Eta, bertsolaritzaren ikerketari dagokionez, martxan diren ikerketei begiratu besterik ez dago, tartean doktoregai tesiak; Mintzola Ahozko Lantegiaren sorrerak zerikusi handia izan du horretan.

Beste hainbat arlotan ere aurrerapauso garrantzitsuak eman dira: genero ikuspegiaren kontzientzian, hedapen tresna berrien sorreran, komunikazio estrategian, Xenpelar Dokumentazio Zentroa indartzen...

Honi guztiari sei elkartetatik, borondatezko ekarpen izugarriekin eta lantalde oso konprometitu batekin erantzuten diogu. Honen parte izatea eta lehen lerrotik bizi ahal izatea luxua izan da.

**Lehendakaritza eredu berria, koordinatzaile aldaketa, gogoeta... zerbait mugitzen ari al da Bertsozale Elkartean?**

Bai, gauza asko ari dira mugitzen: bertsolaritzan orokorrean eta, ondorioz, Bertsozale Elkartean. Bertsolaritza zaindu, ikertu eta etorkizuna bermatzeko sortu zen elkartea. Askotan esan izan dugu, bertsolaritza hain indartsu badago, garaian garaia egokitzen jakin izan duelako dela; Bertsozalearen Azterketa Soziologikoak ere esan digu hori. Eta bertsolaritzarekin eta bertsogintzarekin batera, derrigorrezkoa da Bertsozale Elkartea ere mugitzea eta egokitzea.

Mugimenduaren zentzu horretan ulertu behar da koordinatzaile aldaketa ere. Nik uste, eta bene-benetan horrela sentitzen dut, era honetako elkarte batean “gidaritza” daramanak, ezin duela urte luzez postu horretan iraun: batetik, arlo pertsonalean, postu horrek eskatzen duen energia handia delako, eta, bestetik, aipatu ditugun mugimendu horietara egokitzeke ere,



2008tik Bertsozale Elkarteko koordinatzailea izan da Aritz Zerain. / XDZ

komeni direlako aldaketak. Nik behintzat horrela bizi dut eta horregatik emango dut erreleboa.

### **Gogoeta urtea izan zen iazkoa; eta oraindik jarraipena izango du datozen hilabeteetan. Nola bizi izan duzu prozesua?**

Interesgarria eta aberasgarria izan da. Kultur elkarte batek, noizean behin, horrelako "geldialdi" bat egin beharra dauka: lan egiten duen esparrua nola dagoen aztertzeko, ikuspegi ezberdinak jasotzeko, eta proiektu berean biltzekoeta, hori eginda, ahalik eta gehien artean ibilbidea eta egitekoa egokitu egin behar dituelako.

Ariketa hori egiten saiatu gara, eta oraindik prozesua guztiz itxi ez badugu ere, uste dut elkartearentzat oso aberasgarria izan dela. Eta garrantzitsua: ilusio pizgarria izan da.

### **Urteotan elkartearen ibilbidean garrantzitsuak izan diren uneak bertatik bertara bizitzea ere egokitu zaizu. Zeintzuk azpimarratuko zenituzke?**

Ni sartu nintzenean lantalde nahiko berria ginen eta Zuzendaritza taldean ere errelebo natural bat eman zen; egitura hazten joan ahala, lankide berriak ere hasi ziren. 2009ko Txapelketa Nagusia, zentzu horretan, inflexio puntu garrantzitsua izan zela uste dut.

Mintzola Ahozko Lantegiaren sorrera ere aipatuko nuke. Anbizio handiko proiektua zen, eta, nolabait esateko, elkarteak ordura arte izan zituen lan esparruetatik harago zegoen. Autonomia hainbeste zaindu duen kultur elkarte bat izanda, lankidetzan jarduteko egitura ezberdina sortu genuen Mintzola Fundazioarekin: patronatua osatu eta partekatu egin behar

genuen administrazio publikoarekin, entitate pribatuekin eta unibertsitate batekin. Denek egin behar izan genuen ahalegin berezi bat; gaur egun ere ariketa horretan ari gara.

Eta, azkenik, azken bolada honetan aipagarriena lehendakari eta diruzainaren erreleboa izan da. Hamaika urteotan, Iñaki Muruarekin eta Xabier Gaztelumendirekin bizipen ugari egokitu zaizkit, eta izugarri daukat biei eskertzeko. Bi maisu izan dira niretzat; eta elkarte osoarentzat bi erreferente nagusi, izateko eta egiteko moduagatik. Ohartu ginen ezin genituela ordezkatu, zerbait berria behar genuela eta hortik etorri da lehendakaritza eredu berria.

### **Sei Bertsozale Elkarte, Mintzola Ahozko Lantegia, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Lanku Kultur Zerbitzuak... bolumen handia hartu du proiektuak. Zein indargune eta ahulgune ditu zure ustez?**

Aipatu duzun egitura hori bera izan daiteke indargune eta ahulgune aldi berean. Egitura hau behar du gaur egun bertsoaritzak, berak sortu du esparru ezberdinei erantzuteko eta ez dio inori exijitu.

Sare hori guztia da indargunea, bertsoaritzaren mugimendu osoak bere sentitu eta bertako parte sentitzen denean. Baina bolumen handi hori ahulgune ere bihur daiteke, eguneroko dinamikek, finantzazio beharrek, funtzio eta ardura banaketek eta abarrek, benetako helburuan eta izaeran distorsioa sortzen badute. Bertsoaritzaz zaintzea eta etorkizuna bermatzea da helburua, eta elkarte horretarako tresna da; eta ez bakarria, gainera. Honen kontzientzia izan eta orekak mantentzea oso garrantzitsua da.

**"Egitura hau behar du gaur egun bertsoaritzak, berak sortu du esparru ezberdinei erantzuteko eta ez dio inori exijitu."**



Aritz Zerain Hemaniko bertso eskolako kideekin, txapelketako saio batean. / XDZ



Aritz Zerain lankideekin. / XDZ

**Zein erronka ikusten dizkiozu bertsolaritzari datozen urteotan? Eta, honenbestez, erronka horiek ditu elkarteak edota beste batzuk ere gehituko zenizkioke?**

Erronka oso interesgarriak ikusten dizkiot eta ilusioz begiratzen diegu; 2018ak balio izan digu horiek bistaratzeko. Bertsoaletasunaren Azterketa Soziologikoak bertsolaritzaren egoeraren argazki nahiko argia erakutsi digu eta elementu "berri" asko ageri dira: horrek bertsolaritza eraldatzen ari dela esan nahi du. Eta azterketak berak dioen bezala, biziraun nahi duenak eraldatu egin behar du. Alde horretatik, eraldaketa fase honetan, elementu guztiak ondo txertatzen eta bertsolaritzak bere baitan integratzen asmatu behar da.

Elkarteak egin duen gogoetak ere norabide horretan jarri gaitu, momentua interpretatu, ulertu eta momentuak eskatzen dituen pausoak emateko bidean. Pauso horietako bat da kultur munduan bertsolaritzak duen presentzia indartzea eta bere lekua aldarrikatzea; eta hor espazio, gune, legitimitate eta abar asko dauzkagu irabazteko. Bestetik, bertsolaritza gizartearen bozgorailu eta gizarte horretan parte aktibo eta zuzen-zuzena izanik, gizarte parekide bat lortzeko bidean, bertsolaritzaren mugimendu osoa parekide izatearen helburua ekarpen bikaina litzateke, gure buruarentzat eta gizartearentzat.

**Zer esango zenioke atzetik datorrenari?**

Hasteko behintzat proiektu izugarri "apasionante" batera datorrela esango nioke. Etorri bada hori badakielako izango da ziurrenik, baina uste dut azpimarratzea garrantzitsua dela. Baina, serio jarrita, uste dut gehienez ere nik koordinatzaile postua nola bizi izan dudana azaldu behar diodala, eta ahalik eta informazio praktikoa gehien eman, berak bere irakurketak egin ahal izateko. Horrelaxe egin zidan niri Jexux Muruak bere garaian eta izugarri eskertu diot.

Bertsolaritza izugarri maite dugun edo gustatzen zaigun jende multzoa gara Bertsozale Elkartea. Jende multzo handia, zabala eta anitza. 2.500 bazkidek gora gara, beraz, pentsa bertsolaritza bizitzeko eta ulertzeko zenbat era dagoen horren atzean! Bertsozale Elkarteko koordinazio lanetan dagoenak, horren kontzientzia beti izan behar duela iruditzen zait, eta hori zaila bezain aberatsa denaren kontzientzia. Entzun, ikusi, ikasi eta ulertu egin beharko du etengabe.

**Eta hemendik aurrera, zer? Bertsolaritza nondik biziko du Aritz Zerainek?**

Egia esan, badaukat gogoia berriz ere "beste espazio" batzuetatik bizitzeko. Zorionez, gune ezberdin dezentetatik bizitzea egokitu zait eta horrek asko lagundu dit koordinatzaile lanetan.

Etxean zaletu nintzen. Ondoren, Hernaniko bertso eskolara hurbildu nintzen eta asko eman didan mundu "zoro, baino eder" bat deskubritu nuen: saioen batzuk egin eta 2001eko Txapelketa Nagusian kantatzeko zortea izan nuen; prestaketa nire bizitzako esperientziarik onenetakoa izan zen. Gai jartzaile moduan, urtean 3-4 saio ere egiten ditut. Azkenean, Bertsozale Elkartean aritzea egokitu zait, eta taldea pribilegiatu batetik, egitasmo gehienek lehen lerroa eta ilusio-kezka-buruhauste-elkarlanak bizitzeko aukera izan dut.

Beraz, bertsolaritza bizitzeko zirkulari buelta dezentea eman diot eta hasierako puntura itzuli: lagunarteko eta bertso eskolako "bertsolari" eta bertsozale bat gehiago izatera bueltatzeko gogoia daukat. Eta, noski: Bertsozale Elkartetik gertu egongo naiz, beti.



Estibalitz Esteibar, Iñaki Murua eta Aritz Zerain Bertsozale Elkartearen ordezkari gisa ekitaldi batean. / XDZ



## Aritz, argitik itzala

**IÑAKI MURUA JAUREGI**

Euskaraz hamaika izugarri izan liteke eta guk hamar urtean, egundoko lotura eta harremana lortu dugu. Gauzak esateko, adierazteko eta egiteko moduetan enpatia bilatzen saiatu gara eta entzute aktiboa jarreran txertatu.

Intuizioak edo senak eta aurrez landutako estrategiak esaten dio jokalaritari baloia hartu orduko, nora pasa behar duen; begiratu gabe badaki zein non egongo den eta Aritzek ez du huts egiten. Ez dut uste gazteagotan taldeko kapitain izan zelako datorkionik abilezia hori, egitekoak nola burutu hainbat bileratan jorratearen emaitza baizik. Hartutako bidean eta erabakiarekin erabat ados egon ez arren, ekipoan adostutakoa betetzen ahaleginduko da dagoen lekuan eta karguan dagoela.

Beti jaso ohi ditu bileretako kideen ekarpenak eta astirik badu txukundu eta esanguratsuen laburtu, hurrengo zitarako. Antolaketa bikaineko langile nekaezina eta gauzei beren garrantziaren arabera toki eskaini zalea, egoera zein den kontuan izanik. Hala ere 2011ko irailean esan genion elkarri "egun bat hartuko diagu lasai eta patxadan elkarrekin egoteko, hitz egiteko", eta zazpi urte geroago utzi diot lekua ondoren etorri den ekipoari, asmo hori betetzeke, ez ordea hainbatetan elkarri gogorazi gabe! Hira duk trotea!

Batzuetan Administrazioarekin talkak eta ezin eramanak bideratzeak, leher eginda utzi dute; beste batzuetan lankideen eta gure arteko konponezinek eta ardurek. Hala ere lankideren batek bere atea jotzen bazuen, entzuteko eta eskaerari erantzuteko prest! Indar agortezina eta pazientzia amaigabekoa ditu; izaera apal, arduratsu, zorrotz, zuzen, eskuzabal... eta taldea lehenesten gaitasun apartekoa.

Ez diot lorerik bota, ez du eta nire ez besteren loeren beharrik, baina ez dut uste hamar urte hauetan egin duena eta erakutsi digunaz behar bezala jabetuko garenik, bere argia eta itzalaren falta benetako hutsune bilakaturik bizitzen dugun arte. Milesker Aritz!

## Euskal Herriko Bertsozale Elkartek koordinatzaile orokorra behar du

Aritz Zeraini erreleboa emateko pertsona baten bila ari da Bertsozale Elkartea; apirilean hasiko litzateke lanean.

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek koordinatzaile lanpostua betetzeko pertsona bat behar du. Eginkizun nagusia Bertsozale Elkartearen koordinazio orokorra gauzatzea izango litzateke, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Zuzendaritzaren ardurapean eta herrialdeetako Bertsozale Elkarrekin koordinazioan. Bestalde, aurrekontu eta baliabideen kudeaketa eta lantaldearen koordinazio zein kudeaketaz ere arduratuko litzateke.

Horrez gain, elkarteari lotutako egitura ezberdinen koordinazioa eta jarraipena ere bere esku egongo da (Mintzola Ahozko Lantegia, Lanku Kultur Zerbitzuak edota Xenpelar Dokumentazio Zentroa).

Lan deialdia [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian kontsulta dezakezue. Martxoaren 10erako bidali beharko dira *Curriculum Vitae*a eta motibazio gutuna eta apirilean hasiko litzateke lanean koordinatzaile berria.

## Apirilaren 6an egingo da Batzar Nagusia, Berrizen

Urtarriletik martxora bitartean herrialdeetako batzarrak egin eta gero, datorren apirilaren 6an, 11:00etan hasita, Berrizko Kultur Etxe Zaharrean egingo dugu Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia.

Batzar Nagusian 2018ko memoria eta balantzea errepatatuko dira eta 2019ko egitasmoaren eta aurrekontuaren aurkezpena eta onarpena eman. Bestetik, 2018an Bertsozale Elkartek egindako Gogoeta Estrategikoaren ondorioen aurkezpena eta onarpena egiteko ere baliatuko dugu aurtengo Batzar Nagusia.

Batzarraren ostean, bertan bildutako bazkideen arteko bazkaria egongo da. Bazkarira etortzeko asmoa duzenok, martxoaren 22rako eman beharko duzue izena +34 943694129 telefonora deituz edo komunikazioa@bertsozale.eus helbidera idatziz.





14 SORTZAILE JOLASEAN

Igor Elortza-Joseba Sarrionaindia  
 Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte  
 Julio Soto-Gorka Urbizu  
 Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy  
 Andoni Egaña-Ruper Ordorika  
 Onintza Enbeita- Maite Berriozabal  
 Manex Agirre- Ilaski Serrano